

ZITZ TOOL

ZitzTool, jendeak txakurren kaka jasotzeko tresnen alokairua izateko zerbitzua da. Herriko leku estrategikoetan, parkeetan esate baterako, kutxatila batzuk kokatuko dira, eta hauetan, txakur kakak jasotzeko tresna egongo da, eta honek beharrezkoak izango dituen plastikozko poltsak.

Herritarrei eta turistei zuzendutako zerbitzu bat izango da. Herritarrek udaletxean zerbitzu hau eskatu eta tasa bat ordaintzearen truk, kutxatilen giltza jasoko dute. Horretaz gain, turistei ere eskainiko zaie zerbitzu hau. Hauek adibidez hoteletan edo turismo bulegoetan eskuratu dezakete zerbitzua, baina kutxatilen ondoan bertan ere, tresnen alokairua momentuan eskuratzeko aukera egongo da.